



HAIZE-ARROSA

Dosier 2023

Haize-arrosa taldea Berrizen (Bizkaia) sortu da 2022an. Berriz eta Abadiñoko musikariak diren arren, Berriz dute 0 km bezala, entsegu lokala, musika ideiak partekatzeko gune estrategikoa, taldeari grabitate iraunkorra topatzeko lekua. Musikaren denboraren orratzak gaurkotu dituzte, horrek esan nahi du lehendik ere ibilitakoak direla musikaren zaldiko-maldikoan, gehien bat Ene Bada taldean aurreko mendeko 90eko hamarkadan. Ahuntzak mendira egiten duen legez, egingo duten musikaren kartografia diseinatu dute bueltarako, eta ez galtzeko itsaso zabal horretan haize-arrosa erabiliko dute kantu bakoitzari nortasun neuralgikoa bilatzeko, musika asmoak ekintzetara ekartzeko.

Haize-arrosa taldearen musika koloreak askotarikoak eta pluralak dira, baina ez dabil haize-orratzak markatzen duenaren arabera. Ongi hausnartutako erritmoak landu dituzte, eskarmentu handiko musikariak dira eta fakturatzen duten musikaren ibilbide-orria metatutako esperientziaren aterpean dago, askatasunetik ateratako erritmoak landu dituzte. Folk-rock, Irish-folk-rock, pop-rock, country-rock, elektro-pop-triki, world-fusion, balada, flamenkoa, mex, fandangoa, a capella, ambient... Kantu bakoitzak dauka bere "haize-arrosa". Trikiaren soinuak markatu egiten du melodien zeruertza, hurbildutakoan beste zeruertzak aurkituz. Ibaiak ura daraman bezala, baina beti ere ur desberdina. Askotariko estiloan du atsedena Haize-arrosaren jaiak. Kontzertuetan erabiliko duten taularatzak indarra pilotuko du pixkanaka, entzulea taldearen musika zirimolan harrapatzeko, hori baita zuzenekoan xedea. Ikusleek tarte polita pasaraztea da Haize-arrosa taldearen helburua, disfrutaz disfrutatu. Zera dio taldeak: "Haize-arrosak norbanako bakoitzaren bidaia irudikatu nahi du, bizitzan egindako bidaia, musikan egindakoa, norberak norbere garapen pertsonalean egindakoa edo beste edozein. Baina ez bakarrik taldekide garenona, baita ere gurekin partekatu, gurekin gozatu eta gurekin bidea egin nahi dutenena".

Letretan hainbat idazleen laguntza jaso dute: Miren Agur Meabe, Miren Amuriza, Xabier Amuriza, Onintza Enbeita, Eneko Abasolo "Abarkas", nahiz eta Eneritz Gorritxategi taldekideak ere idatzi dituen kantu batzuen hitzak. Gai pertsonalak kolektibizatu dituzte feminismoaren ikuspegitik. Bai, hausnarketa zintzo baten bidez, emakumea goraiatu nahi du Haize-arrosa taldeak.

Hauk dira Haize-arrosa eta euren musika-ibilbideak: Eneritz Gorritxategi Lariz (trikitia eta ahotsa, Ene Bada, Kherau), Edurtzeta Ania Albizbeaskoetxea (perkusoak eta ahotsa, Ene Bada), Markos Murillo Gil (gitarra, Ene Bada eta MPB), David Vallejo Cantero (bateria, Ene Bada, Moonshiners, Alerta Metalcore), Peio Agirre Gimenez (baxua, Eta Zer!, Zer, Bad Limit, Storm).

